



Andoaino  
Udala

**Andoaingo gazte lokalei buruzko  
udal ordenantza arautzailea**

**Ordenanza municipal reguladora  
de locales de juventud de Andoain**

**ZIOEN ADIERAZPENA**

Gazteek beren astialdian taldean gozatzeko alokatutako lokalak, agertu berriak ez diren arren, gorantz datorren gizarte gertakari dira gure ingurunean. Gizatalde horiek gizartekotzeko, elkartzeko eta jolas nahiz aisia jarduerak egiteko gune alternatiboak behar dituztelako sortu dira.

Udalak lokal horietaz duen informazioa (zein diren, haien eraketa, ezaugarriak, segurtasun eta osasungarritasun egoera) lausoa eta zatikatua da. Izan ere, haien zentsurik eta erregistrorik ez da, ez eta gertakari horrek eragindako udal zerbitzu eta sailen arteko ekintza koordinatu eta proaktiborik ere; haietako bakoitzak bere eskumeneko eginkizunei lotutako alderdietara bideratzen ditu ahaleginak.

Udalaren ustez beharrezkoa da azken aldian eta batez ere gazteen artean indarra hartzen ari den errealtate sozial hau arautzea. Horrez gain, Udalak herritarren eta lokalen erabiltzaileen atsedean egokia eta segurtasuna bermatzeko betebeharra du.

Noizean behin, egiaztatu ahal izan da gazteek erabiltzen duten hainbat lokalek ez dituela betetzen gutxienezko neurriak. Gainera, lokal edota eraikin horien egiturazko baldintzak desagokiak dira eta, ondorioz, arriskuak areagotu egiten dira.

Zarata izan ohi da lokalen erabiltzaileen eta bizilagunen arteko gatazka nagusiaren jatorria. Lokal hauen inguruan sortzen den zikinkeria ere izan daiteke gatazka-eragile bizikidetzan.

Lokaletako erabiltzaile eta errentapeko diren aldetik, gazte horiek dituzten eskubideak ezagutu

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

El fenómeno de los locales alquilados por jóvenes para disfrute colectivo de los mismos en su tiempo libre, aunque no nuevo del todo, es un fenómeno social emergente en nuestro entorno que surge ante la necesidad de este colectivo de disponer de espacios alternativos de socialización, encuentro y desarrollo de actividades lúdicas y de ocio.

La información que el Ayuntamiento tiene sobre la existencia de estos locales y sobre su configuración, características, condiciones de seguridad y salubridad es difusa y fragmentada, al no existir un censo y registro de los mismos, ni una acción coordinada y proactiva entre los diferentes servicios o departamentos municipales afectados por este fenómeno, ya que cada uno de ellos concentra su esfuerzo, exclusivamente, en los aspectos que tienen relación con las funciones que tienen encomendadas.

En opinión del Ayuntamiento es necesario regular esta realidad que está tomando fuerza durante los últimos tiempos y sobre todo entre los/as jóvenes. Además, el Ayuntamiento tiene la obligación de garantizar el adecuado descanso y la seguridad tanto de los/as vecinos/as como de los/as usuarios de los locales.

Alguna vez se ha comprobado que los locales utilizados por los/as jóvenes no reúnen condiciones mínimas para ello. Además, el estado de esos locales o edificios no es el adecuado, por lo que el peligro se acrecenta.

Los ruidos suelen ser el origen del principal conflicto entre usuarios/as de estos locales y vecinos/as. La suciedad que se origina en torno a dichos locales puede ser también motivo de conflicto en la convivencia.

Se desea conseguir que estos/as jóvenes, en su calidad de usuarios/as y arrendatarios/as de los



Andoaingo  
Udala

## Andoaingo gazte lokalei buruzko udal ordenantza arautzailea

## Ordenanza municipal reguladora de locales de juventud de Andoain

eta gauza ditzaten lortu nahi da, baita dituzten betebeharrak eta ardurak ere.

Ordenantza eta erantsita doan protokolo hau ondorengo xedeak kontuan izanda sortu da:

- Aisialdi alternatiborako batik bat gazteek eskatzen dituzten tokiak bermatzea.
- Erabiltzaileei eta auzokoei enbarazurik eta kalterik ez egitea.
- Maizterren eta bizilagunen eskubideak eta betebeharrak bateratzea.
- Inplikaturako alderdien erantzukizunak zehaztea.
- Interes pribatuak eta publikoak uztartuko dituen konponbide egokia jartzea.

Beraz, Gazteek, bizilagunek eta lokalen jabeek, hortaz, ordenantza honen berri izan behar dute.

locales, conozcan los derechos que les asisten, pero también sus obligaciones y la responsabilidad a la que se enfrentan.

La presente ordenanza y el protocolo anexo tienen en su génesis el siguiente objetivo:

- Garantizar, al menos, los espacios que los/as jóvenes demandan para su recreo y tiempo libre alternativo.
- No causar molestias ni perjuicios a los/as usuarios/as y a los/as vecinos/as.
- Aunar derechos y obligaciones de los/as arrendatarios/as y de los/as vecinos/as.
- Concretar las responsabilidades de las partes implicadas.
- Establecer una solución adecuada que articule los intereses públicos y privados.

Por tanto, los/as jóvenes, los/as vecinos/as y los/as propietarios/as de los locales deben tener conocimiento de esta Ordenanza.

### I. ATALA XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

#### 1.- Artikulua.- Xedea.

Udalerrian dauden gazte lokalen erabilera arautzea du helburu ordenantza honek.

Ordenantza honen xedeak honako hauek dira:

- a).- Gazteak aisialdi alternatiborako erabiltzen dituzten guneak, nahitaez, gutxieneko segurtasun baldintzak bete ditzaten ziurtatzea, bizigarritasuna, higiene eta erosotasunari dagozkienak ere.
- b).- Gazte lokalen erabilera eta auzotarren eskubideak bateratzea, arazoak saihestea eta alde bietako eskubideak beteko direla ziurtatzea dagozkion neurri zuzentzaileak hartuta.
- c).- Gazte lokaletan sor daitezkeen arazoak

### CAPÍTULO I OBJETO Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

#### Artículo 1.- Objeto.

Esta ordenanza tiene por objeto regular el uso de los locales destinados a espacios de ocio y reunión de jóvenes que existan en el municipio.

Los objetivos de la presente ordenanza son los siguientes:

- a).- Asegurar que los espacios utilizados por los/as jóvenes para el esparcimiento alternativo cumplan con unas mínimas condiciones de seguridad, que lo sean también respecto a la habitabilidad, higiene y comodidad.
- b).- Que se articulen el uso de los locales por parte de los/as jóvenes con los derechos que asisten a los/as vecinos/as, evitando los problemas y asegurando el cumplimiento de los derechos que corresponden a ambas partes mediante la adopción de medidas correctoras.
- c).- Reducir los problemas que pueden surgir en



Andoaingo  
Udala

## Andoaingo gazte lokalei buruzko udal ordenantza arautzailea

## Ordenanza municipal reguladora de locales de juventud de Andoaín

murriztea eta bizikidetasuna bultzatzea.

- d).- Lokalen jabeek alokairu kontratu baten bidez edo legezko beste modu baten bidez lokal horiek gazte lokal gisa erabiltzeko laga ahal izan ditzaten.

### 2.- Artikulua.- Hartzaileak.

Ordenantza horren xede 12 urtetik 30era bitarteko erabiltzaileak izango dira.

Gazte lokalak sarrera mugatuta duten gune pribatuak dira, eta horrenbestez, ez dadude zabalik jende ororentzat.

### 3.- Artikulua.- Ordenantzaren ezarpen-eremua.

Ordenantza honen ezarpen eremua Andoaingo hirilurrean kokaturiko lokalei dagokiena da. Horrenbestez, beran haintzakotzat hartuko da, irekiko diren lokal berrietarako zein gaur egun daudenak egokitzeke.

los locales de jóvenes e impulsar la convivencia.

- d).- Que los/as propietarios/as de locales puedan ceder o arrendar los mismos para su uso como locales de juventud a través de un contrato de arrendamiento o mediante algún otro recurso legal.

### Artículo 2.- Destinatarios/as.

Serán destinatarios/as los/as usuarios/as comprendidos entre los 12 y los 30 años.

Los locales de jóvenes son espacios privados con acceso limitado, y que no están abiertos, por lo tanto, al público en general.

### Artículo 3.- Ámbito de aplicación de la ordenanza.

Serán ámbito de aplicación de la presente ordenanza los locales ubicados en suelo urbano y lo establecido por la presente ordenanza será de aplicación tanto para los locales de nueva implantación como para la adecuación de los que existen en la actualidad.

## II. ATALA

### GAZTERIA ZERBITZUAREN JARDUNA

#### 4.- Artikulua.- Gazteria Zerbitzuaren jarduna.

- a).- Udalak, Gazteria zerbitzuaren bitartez, informatze, orientatze eta sentiberatze eginkizuna gauza lezake, egin ahalko du, ordenantza honen xede den jardura gauzatzean gatazkarik izatea saihestearren.

- b).- Horretarako, gazte taldeak ordezkari bat izendatu beharko du, adin nagusikoa, besteak beste helburu hauek bete daitezen:

- Udalaren eta lokala darabiltenen arteko elkarrizketa eta komunikazio trabagabea bideratzea.
- Lokalaren erabiltzaileen eta hirugarrenen artean gatazkarik izatea saihestearren, Gazteria zerbitzuaren-gandik beharrezko informazioa eta orientazioa jasotzea.

## CAPÍTULO II

### ACTUACIÓN DEL SERVICIO DE JUVENTUD

#### Artículo 4.- Actuación del servicio de juventud.

- a).- El Ayuntamiento, a través del Servicio de Juventud, podrá desarrollar la función de información, orientación y sensibilización, a fin de evitar posibles conflictos en relación con el desarrollo de la actividad objeto de la presente ordenanza.

- b).- A estos efectos, el grupo de jóvenes podrá designar una persona, mayor de edad, que le represente, en orden, entre otros, al cumplimiento de los siguientes fines:

- Facilitar el diálogo y la comunicación fluida entre el Ayuntamiento y los/as usuarios/as del local
- Recibir del Servicio de Juventud la información y orientación necesarias para evitar posibles conflictos entre las personas usuarias del local y/o terceros.



Andoaingo  
Udala

### Andoaingo gazte lokalei buruzko udal ordenantza arautzailea

### Ordenanza municipal reguladora de locales de juventud de Andoain

- Ordezkatzen duen taldeari dagokionez erabilera jarduera amaitu izana jakinaraztea.
- c).- Hala egokituz gero, taldearen ordezkariak Udalari idatziz jakinarazi ahalko dio ordezkari izateari utzi nahi diola. Era berean, idatziz jakinarazi beharko du taldearen beste ordezkari baten izendapena.
- d).- Orobat, gazte erabiltzaileen eta jabekideen arteko komunikazioa bideratzeko eginkizuna ere bete liteke, bi aldeoi laguntzeko sor litezkeen arazoak auzirik gabe ebazten.
- e).- Gazteria zerbitzuak argibideak emango dizkie gazteei dauden lokalei eta honako ordenantza honi buruz.
- Informar sobre el cese de la actividad por parte del grupo de jóvenes al que representa.
- c).- En su caso, el representante del grupo podrá comunicar al Ayuntamiento por escrito su deseo de cursar baja como tal, pudiendo comunicar, también por escrito, la designación de una nueva persona como representante del grupo.
- d).- En el mismo sentido, podrá desarrollarse la función de facilitar la comunicación entre jóvenes usuarios/as y la comunidad, para ayudar a las partes a que alcancen una solución amistosa en los conflictos que pudieran plantearse.
- e).- Por medio del Servicio de Juventud se dará información a los/as jóvenes sobre los locales existentes y la presente ordenanza.

### III. ATALA LOKALEK BETE BEHARREKO GUTXIENEO BALDINTZAK

### CAPÍTULO III CONDICIONES MÍNIMAS QUE DEBERÁN CUMPLIR LOS LOCALES

#### 5.- Artikulua.- Hirigintza eta Arkitektura Baldintzak.

Lokalak hiri lurrean beheko solairuetan edo erdi-sotoetan egon beharko dira kokaturik.

- a).- Lokalek sarrera zuzenean bide publikotik izan beharko dute, atalondotik independentea den sarbide batekin.
- b).- Lokala ez da beste lokal bati lotuta egongo, eta ez da bestelako erabilera duen lokal baten parte izango.
- c).- Gutxieneko garaiera librea, lokalaren barrualdean, gutxienez 2,50 metro izango da, edo eraikina eraikitzeke unean eskatzekoa dena.
- d).- Behe-solairuko lokaletako gutxieneko azalera erabilgarria, 25 metro karratua izango da.
- e).- Nahitaez bete beharrekoa izango da irisgarritasunari buruzko araudia, eta bereziki, Erabilera eta Irisgarritasuneko Oinarrizko Agiria eta apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua, azken honen bidez

#### Artículo 5.- Condiciones urbanísticas y arquitectónicas.

Los locales deberán estar situados en suelo urbano y ubicados en planta baja o de semisótano.

- a).- El acceso al local se efectuará directamente desde la vía pública por un acceso independiente al portal.
- b).- El local no estará unido a otro local ni formará parte de otro local con un uso diferente.
- c).- La altura libre mínima en el interior del local no será inferior a 2,50 metros o a la que en el momento de construcción del edificio fuere exigible.
- d).- La superficie útil mínima de los locales, en planta, será de 25 metros cuadrados.
- e).- Será de obligado cumplimiento la normativa siguiente en materia de accesibilidad y específicamente el documento básico DB.SUA Seguridad de Utilización y Accesibilidad y las normas técnicas sobre



Andoaino  
Udala

## Andoaingo gazte lokalei buruzko udal ordenantza arautzailea

## Ordenanza municipal reguladora de locales de juventud de Andoain

onartzen baitira hiriguneetako, gune publikoetako, eraikinetako, eta informazio eta komunikazio sistemetakoa irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak.

condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación, Decreto 68/2000, de 11 de abril.

### 6.- Artikulua.- Suteen kontrako babes baldintzak.

Orokorrean CTE-DB-SUA kodeak xedatutakoa beteko da.

- a).- Lokalak husteko eta kanpoan segurutzat jotzen den eremuraino iristeko ibilbideek larrialdi argiak izango dituzte, eta aterabide eta suteen aurkako babes baliabideak adierazteko seinaleak.
- b).- Okupazioa gehienez pertsona bat izango da 5 m<sup>2</sup> bakoitzeko, salbu eta lehenengo 50 m<sup>2</sup>.etan, non pertsona bat 3 m<sup>2</sup> bakoitzeko izango den. Guztira ezingo dira 50 pertsona baino gehiago sartu.
- c).- Egiturak gutxienez R-120 erresistentzia izango du.
- d).- Hormek eta sabaiek suarekiko EI-90 erresistentzia izango dute, lokal bakoitza ongi bereiz dadin eraikinaren gainerako aldeetatik banandutako sute sektorea gisa.
- e).- Eraikuntza, apaindura eta altzari elementuen suarekiko erreakzioa, gutxienez, C-s2,d0, izango da sabai eta hormetan, eta Efl zoruetan.
- f).- Lokalak hauts balioaniztunezko itzalgailuak izango ditu, 21A-113B eraginkortasunekoak. Inongo toki ez da izango itzalgailu batetik 15 metro baino urrunago eta, nolana ere, gutxienez bi itzalgailu izango dira.
- g).- Instalazio elektrikoak Tentsio Txikiko Arautegi Elektroteknikoa edo hura ordeztzen duen araudia beteko du.

### 7.- Artikulua.- Osasun eta Ingurumeneko Baldintzak.

- a).- Lokal bakoitzak garbitasuneko gutxieneko neurriak bete beharko ditu. Beraz, lokalak erraz garbitzeko ondo egokituta egon beharko du. Beraz, lurra, hormak eta sabaiak leunak izan beharko dira erraz

### Artículo 6. Condiciones de protección contra incendios.

En general se estará a lo dispuesto en el CTE.DB.SI.

- a).- El local y el recorrido de evacuación hasta el espacio exterior seguro dispondrá de alumbrado de emergencia y señalización de evacuación y de los medios de protección contra incendios.
- b).- La ocupación máxima será de 1 persona cada 5 m<sup>2</sup>, excepto para los primeros 50 m<sup>2</sup> que será de 1 persona por cada 3 m<sup>2</sup>, no pudiendo sobrepasar el aforo de 50 personas.
- c).- La estructura tendrá una resistencia al fuego mínima R-120.
- d).- Las paredes y los techos tendrán una resistencia al fuego EI-90 para que cada local constituya un sector de incendio diferenciado del resto de edificio.
- e).- La clase de reacción al fuego de los elementos constructivos y decorativos será como mínimo en techos y paredes C-s2,d0 y en suelos E<sub>FL</sub>.
- f).- El local dispondrá de extintores de polvo polivalente de eficacia 21A-113B de manera que ningún punto del local quede a más de 15 metros de un extintor, con un mínimo de 2 extintores.
- g).- La instalación eléctrica cumplirá el Reglamento Electrónico de Baja Tensión o normativa que la sustituya.

### Artículo 7.- Condiciones sanitarias y ambientales.

- a).- Cada local deberá cumplir unas medidas mínimas de higiene. Por ello, el local deberá estar acondicionado de forma que se pueda efectuar una limpieza con facilidad. Así pues, el piso del suelo, las paredes y los



Andoaingo  
Udala

## Andoaingo gazte lokalei buruzko udal ordenantza arautzailea

## Ordenanza municipal reguladora de locales de juventud de Andoaín

- garbitzeko.
- b).- Lokalak aireztatze naturala edota eragindakoa izan beharko du.
  - c).- Lokalak argizatze naturala edota artifiziala izan beharko du.
  - d).- Ez da onartuko sukalderik, plantxarik, laberik edo kea sortzen duen edozein elementurik instalatzea.
  - e).- Konketa eta komunontzia behintzat badituen komun bat izango du, salbu eta komun hori (halakorik baldin badago) erabilera orokorreko eremuetan erabiltzeko aukera dagoela justifikatzen denean.

### 8.- Artikulua.- Zarata eta bibrazioen aurka babesteko baldintzak.

- a).- Funzionatzen duen aldian, zarata eta bibrazio mailei dagokionez, ez dira gaitutako zarata eta bibrazioengatik sortutako kutsadura akustikoaren kontrako udal jarduketaren ordenantzan eta 213/2012 Dekretuan (2012ko urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots kutsadurarena) ezarritakoak.
- b).- Irratia, telebista, hari musikala eta musika ekipamenduak erabili ahal izango dira, potentzia handikoak izan ezik. Guztiek ainguratuta egon beharko dute, lokalaren edozein gunetan 75 dB (A) soinu maila gaitutako ez dezaten.
- c).- Bibrazioaren kontrako osagaiak erabiliko dira makinak lotzeko.

## IV ATALA LOKALAREN ERABILERA

### 9.- Artikulua.- Lokalaren erabilera.

Lokal hauek otsailak 27ko 3/1998 Ingurumena Babesteko Legearen 55 eta 62-bis artikuluek xedatzen duten aurretiazko jakinarazpenarekin bat egin behar dute. Ezingo dute, gainera, gazteen aisialdiarekin zerikusi zuzena ez duten jarduerarik burutu, ez eta gogaikarriak direnak

- techos deberán ser lisos y fáciles de limpiar.
- b).- El local deberá contar con ventilación bien natural o forzada.
  - c).- El local deberá disponer de iluminación natural o artificial.
  - d).- No se permitirá la instalación de cocinas, planchas, hornos o cualquier elemento productor de humos.
  - e).- Deberá disponer de un aseo dotado como mínimo de lavabo e inodoro, salvo que se justifique la posibilidad de utilización del mismo, si lo hubiere, en zonas de uso común.

### Artículo 8.- Condiciones de protección contra el ruido y las vibraciones.

- a).- Durante su funcionamiento, no se superarán, en las viviendas o locales contiguos más afectados, los niveles de ruido y vibración máximos establecidos en la Ordenanza Municipal de Protección contra el ruido, así como el Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco (BOPV de 16/11/2012).
- b).- Se podrá hacer uso de radios, televisión, hilo musical y equipos de música, de potencia eficaz no superior a 50 vatios para una carga estándar de cuatro ohmios. Todos deberán hallarse anclados, para que en ninguna zona del local se supere el nivel de ruido en 75 dB(A).
- c).- El anclaje de toda maquinaria existente se efectuará con elementos antivibratorios.

## CAPÍTULO IV USO DEL LOCAL

### Artículo 9.- Uso del local.

Estos locales deberán cumplir con la comunicación previa que establecen los artículos 55 y 62-bis de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, de Protección del Medio Ambiente. No podrán, además, desarrollar ninguna actividad no relacionada directamente con el esparcimiento



Andoaingo  
Udala

**Andoaingo gazte lokalei buruzko  
udal ordenantza arautzailea**

**Ordenanza municipal reguladora  
de locales de juventud de Andoain**

edo debekatuta daudenak ere.

Berariaz araudi honetatik kanpo geldituko dira ostalaritzako jarduerak, hala nola zirkuetan, barraketan, txosnetan eta txoko gastronomikoetan kokatutako taberna, kafetegi edo jatetxe zerbitzuak, eta baita 3/1998 Ingurumena Babesteko Legearen II.B eranskinean aipatutako jarduera guztiak ere.

Etxejabeen elkarteetan arazoak pila ez daitezten, ez da atari edo ezkaratz bakoitzeko lokal bat baino gehiago irekiko eta berauen arteko gutxienezko distantzia 25 metroa izanen da. Lehendik dauden lokalak mantendu ahalko dira, nahiz eta atari bakoitzeko bat baino gehiago egon, betiere ordenantza honetan ezarritako betebeharrak betetzen badituzte.

**10.- Artikulua.- Erabiltzaileen eginbideak eta debekuak.**

- a).- Debekatuta dago ezer saltzea edo erostea lokal hauetan.
- b).- Ezingo dituzte bertako altzariak kalera atera.
- c).- Galerazita egongo da eskola adinean dauden gazteei, eskola orduetan lokala erabiltzea, jolasordua barne.
- d).- Kalearen erabilera bereziagatik zikinduta geratu bada, kalea garbitu beharko da.
- e).- Adin txikikoek ezingo dute alkohola kontsumitu, kontsumoaren prebentzioan eta mugaketan martxoaren 16eko 10/1991 foru legeak dioena aplikatuz.
- f).- Lokalaren erabiltzaileak adin txikikoak badira, kontratua sinatu duten gurasoen edo tutoreen ardurapean geratuko da bertan alkohola ez edatea eta eskola orduetan lokala ez erabiltzea.
- g).- Ordenantza honetan araututako gehienezko edukiera errespetatuko da.

juvenil, ni tampoco las consideradas molestas o las que se hallen prohibidas.

Quedan expresamente excluidas del ámbito de la presente normativa las actividades de hostelería, así como los servicios de bar, cafetería o restaurante ubicados en circos, barracas, txosnas y rincones gastronómicos, y también todas las actividades recogidas en el anexo II.B de la Ley 3/1998, de Protección del Medio Ambiente.

Para evitar la acumulación de problemas en las comunidades de vecinos, no se autorizará la apertura de más de un local por cada portal o escalera y la distancia mínima entre locales será de 25 m. Los locales anteriormente existentes podrán mantenerse, aun cuando haya más de uno por portal, debiendo cumplir, en todo caso, todas las condiciones establecidas por la presente ordenanza.

**Artículo 10.- Obligaciones de los/as usuarios/as y prohibiciones.**

- a).- Está prohibido comprar o vender artículo alguno en estos locales.
- b).- No podrán sacar los muebles del local al exterior.
- c).- Estará prohibido el uso del local en horario escolar a los jóvenes en edad escolar, incluido durante el recreo.
- d).- El exterior del local y sus inmediaciones tendrán que mantenerse en condiciones higiénicas adecuadas.
- e).- Los menos de edad no podrán consumir bebidas alcohólicas, en aplicación de la Norma Foral 10/1991, de 16 de marzo, sobre prevención y limitación en el consumo.
- f).- Si los/as usuarios/as del local son menores de edad será responsabilidad de los progenitores o tutores que hayan firmado el contrato de arrendamiento, garantizar que en el mismo no se consuma alcohol, ni se use en horario escolar.
- g).- Se respetará el aforo máximo, a tenor de lo establecido por esta ordenanza.



Andoaino  
Udala

### Andoaingo gazte lokalei buruzko udal ordenantza arautzailea

### Ordenanza municipal reguladora de locales de juventud de Andoain

- h).- Debekatuta daude auzotarrei gogaikarri zaizkien jarduerak, eta baita eraikinaren segurtasuna arriskuan jarriko luketenak ere.
- i).- Debekatuta dago era guztietako erregaiak eta gai pozoitsuak biltegitratzea.
- j).- Debekatuta dago berogailuetarako gasa eta edozein erregai biltegitratzea.
- k).- Jokuentzako makinak egongo balira, izan beharko dira bere erabilerako ordaintzera behartuta ez daudenak eta sariak ematen ez dutenak ere.
- l).- Lokalean ezin da zaborra bildu, kanpoko udal kontainerretan bildu behar direlarik.
- m).- Lokal barruan abereak egongo balira lagunduta eta ondo zainduta egon beharko dira.
- n).- Onartutako erabilera baldintza hauek ez haustea, erabiltzaileen ardura izango da.
- o).- Lokalaren erabiltzaileak ezingo dira lokalaren kanpoaldean egon 22:00 orduetik aurrera.

#### 11.- Artikulua.- Asegurua.

Jardueragatik erantzunkizuneko asegurua eduki beharko dute. Egin daitezkeen kalteengatik bai bertan daudenei bai hirugarren pertsoneri, babesten dituen asegurua. Erabiltzaileek eurek kontratatuko dute asegurua eta Udalarik zein bizilaguneri aurkeztu beharko diete. Gutxieneko estaldura 100.000 €koa izango da

#### 12.- Artikulua.- Kontratua.

- a) Lokalek alokairu kontratua edo erabiltzeko lagapenaren kontratua izan behar dute, jabeek eta erabiltzaileek izenpetua. Adingabeen kasuan, haien ardura dutenek izenpetuko dute.
- b) Lokalaren erabiltzaile guztiek kontratua sinatu ezean, kontratuarekin batera erabiltzaileen zerrenda jasotzen duen dokumentua aurkeztu beharko da, izenak,

- h).- Están prohibidas las actividades molestas para los/as vecinos/as, así como aquellas que pongan en peligro la seguridad del edificio.
- i).- Se prohíbe el almacenamiento de todo tipo de materiales o productos inflamables y sustancias tóxicas.
- j).- Se prohíbe estufas de gas y el almacenamiento de cualquier tipo de combustible.
- k).- En el caso de que existan máquinas recreativas o de juego, serán del tipo cuya utilización no exija el pago de precio ni se obtenga ningún premio.
- l).- No se permite acumular basura en el local, debiendo depositarse en los contenedores exteriores municipales.
- m).- Los animales que se encuentren en el local deberán estar debidamente acompañados y atendidos.
- n).- Será responsabilidad de los/as usuarios/as del local la no infracción de las condiciones de uso aprobadas.
- o).- Se prohíbe la permanencia de los/as jóvenes, usuarios/as del local, en el exterior del local, a partir de las 22:00 horas.

#### Artículo 11.- Seguro.

Deberán contar con un seguro de responsabilidad por su actividad. Un seguro que cubra por los perjuicios ocasionados tanto a quienes se encuentren en el local como a terceros. Serán los/as usuarios/as quienes deberán contratar el seguro, que deberán presentárselo tanto al Ayuntamiento como a los/as vecinos/as. La cobertura mínima será de 100.000 euros.

#### Artículo 12.- Contrato.

- a).- Los locales contarán con contrato de alquiler o con contrato de cesión de uso, firmado por el/la propietario/a y por los/as usuarios/as. En el caso de los menores, firmarán quienes ostenten su tutela.
- b).- En caso de que el contrato no estuviera firmado por todos/as los/as usuarios/as del local, junto al contrato se deberá presentar un documento en el que se recoja la





Andoaino  
Udala

## Andoaingo gazte lokalei buruzko udal ordenantza arautzailea

## Ordenanza municipal reguladora de locales de juventud de Andoain

abizenak eta jaiotze data jakinaraziz; hori guztia erabiltzaileen urteak eta ordenantzako 6 b) artikuluan onartutako gehieneko edukiera betetzen den egiaztatzeko.

relación de los/as usuarios/as, indicando nombres, apellidos y fecha de nacimiento, a fin de comprobar la edad de los/as usuarios/as y el cumplimiento del aforo permitido en el artículo 6 b) de la ordenanza.

### 13.- Artikulua. Orduetgia.

Erregimen orokorra:

- a).- Astelehenetik ostegun arte: 10:00tik - 22:00ak arte.
- b).- Ostiraletan, larunbata eta jaiegun ii. bezperetan: goizeko 10:00tik - 24:00ak arte.
- c).- Igandetan: goizeko 11:00etatik 22:00ak arte.

Orduetgi luzapena:

- Baimendu ahal izango da orduetgiaren luzapena, aurretik baimena eskatuta, ondoren aipatzen diren datetan:
- San Juanak, Santa Krutzak, Iñauteriak, Gabon Gaua eta Urte Zahar Eguna: gaueko 02ak arte.

Isiltasun orduetgiak errespetatuko ez balira agintaritzak eskudunak lokala ixtea agin dezake.

### Artículo 13.- Horario.

Régimen general:

- i. De lunes a jueves: de las 10:00 a las 22:00 horas.
- Viernes, sábado y vísperas de festivo: desde las 10:00 de la mañana a las 24:00 horas.
- ii. Domingos: de las 11:00 de la mañana a las 22:00 horas.

Prórroga horaria:

- Podrá autorizarse previa solicitud, una ampliación de los horarios de cierre en fechas tales como:
- Sanjuanes, Santacruces, Carnavales, Nochebuena y Nochevieja: hasta las 02.00 horas de la madrugada.

Si no se respeta los horarios, la autoridad competente podrá ordenar el cierre del local.

## V ATALA

### LOKAL BERRIAK IREKI AHAL IZATEKO EDO GAUR EGUN ERABILTZEN DIREN LOKALEN EGOERA ARAUTZEKO PROZEDURA.

### 14.- Artikulua.- Jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena.

Jarduera hasi aurretik, jardueraren sustatzaileak jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena aurkeztu beharko du emantzipatu gabeko adingabekoa izanez gero, ordezkariaren sinadura duela, Udalak horretarako egin duen ereduari jarraituz, bertan zehaztutako dokumentu guztiak ekarrita.

Jakinarazpenarekin batera aurkeztu beharko da ordenantza honetako II. Eranskinean jasotako Elkarbizitzarako Protokoloa, sustatzaileak sinatua.

## CAPÍTULO V

### PROCEDIMIENTO PARA LA APERTURA DE NUEVOS LOCALES O PARA LA REGULACIÓN DE LA SITUACIÓN DE LOS LOCALES DESTINADOS EN LA ACTUALIDAD A DICHO USO.

### Artículo 14. Comunicación previa de actividad clasificada.

Con carácter previo al inicio de la actividad, el promotor de la actividad, en caso de ser menor de edad no emancipado con la firma de su representante, deberá presentar comunicación previa de actividad clasificada, según modelo elaborado por el Ayuntamiento, aportando toda la documentación enumerada en el mismo.

A tal comunicación se adjuntará el Protocolo para la Convivencia que figura como Anexo II a esta ordenanza, firmada por el promotor.



Andoaingo  
Udala

**Andoaingo gazte lokalei buruzko  
udal ordenantza arautzailea**

**Ordenanza municipal reguladora  
de locales de juventud de Andoain**

**15.- Artikulua.- Obra baimena.**

Edozein motatako obra egin behar bada, 14. artikuluan ezarritako eran jardueraren aurretiazko jakinarazpena aurkeztu baino lehen, dagokion obra lizentzian jaso eta baimendutako obrak eskatu, lortu eta gauzatu beharko dira.

**16.- Artikulua.- Jarduera erregistratzea.**

Udalak gazteen aisialdirako eta elkartzeko gune diren lokalen erregistroa garatuko du, ordenantza honen bitartez biltzen dituen datuetan oinarriturik.

**17.- Erregistratu gabeko lokalak.**

Kasuan kasu egoki diren bestelako zigorrak alde batera utzi gabe, ordenantza honetan araututako baldintzak betetzen ez dituen lokala dagoela jakiten denean honako neurri hauek hartuko dira:

- a).- Lokala legeztatzeko modukoa baldin bada, titularrei eskatuko zaie beraien egoera legeztatu dezatela; horretarako, gehienez ere, hiru hilabeteko epea emango zaie, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik. Horrez gain, lokala itxi ahal izango da, kautelarki interesdunei entzunaldia eskaini ondoren.
- b).- Legeztatzea ezinezkoa baldin bada, ordenantza hau edo gainontzeko udal araudia betetzen ez dituelako, lokala itxi egin beharko da; interesdunei entzunaldia eskainiko zaie.

**18. Artikulua.- Ikuskatzeko eta kontrolatzeko ahalmena.**

- a).- Lokalak urtero ikuskatuko dira, zein egoeratan dauden ikusteko, eta lokalen zerrenda eguneratuta edukitzeko.
- b).- Udalaren eskumenekoak izango dira ordenantzan ezarritakoa benetan betetzen dela egiaztatzeko egingo diren funtzioak. Era berean, Udalak beharrezko ikuskapenak egiteko ahalmena izango du. Alkateak edo,

**Artículo 15. Licencia de obras.**

Si fuera necesaria la realización de cualquier tipo de obra, con carácter previo a presentar la comunicación previa de la actividad en la forma prevista en el artículo 14, deberá solicitarse, obtenerse y ejecutarse las obras contenidas y autorizadas en la preceptiva licencia de obras.

**Artículo 16. Registro de la actividad.**

